Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2197

AGINDUA, 2009ko martxoaren 17koa, Kultura sailburuarena, Ajangizko Auzokoa baserria (Bizkaia) monumentu kategoriako kultura-ondasun deklaratzen duena, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Estatutuko 10.19. artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondareari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena, onartu zen.

Ajangizko Auzokoa baserriak (Bizkaia) kultura aldetik duen interesa ikusita eta haren kultura-balioan oinarrituta, eta indarrean dagoen legerian xedatutakoari jarraituz, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak baserria Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedientearen hasiera eskatzea erabaki zuen 2007ko irailaren 19ko Ebazpenaren bidez (urriaren 19ko EHAA, 202. zk.).

Espediente horren administrazio-izapidean, lehen aipaturiko 7/1990 Legearen 17. eta 11.3. artikuluetan eta horrekin bat datozen gainerako xedapenetan ezarritakoarekin bat, jendaurrean jarri zen espedientea eta interesdunei entzuteko epea ireki zen.

Informazioa jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko izapidea egin ondoren, Ramón Etxeandia Zabalak, Auzokoa baserriaren ondoko Ispizuaurrekoa baserrian egoitza duenak, alegazio-idazkia aurkeztu zuen.

Hona zertan datzan Ramón Etxeandia Zabalaren alegazioa:

1.– Ez dago konforme ekialdeko muga moduan proposaturikoarekin, zeren horren barruan berak bizitoki duen Ispizuaurrekoa baserriaren atzealdeko karga-hormari itsatsita dagoen estalpea sartu baita.

2.– Haren iritziz, bidezkoagoa litzateke auzoari zerbitzua ematen dion gurdibideko mendebaldeko horma hartzea ekialdeko mugatzat.

3.– Mugaketaren hegoaldean txabola txiki bat utzi da kanpoan.

4.– Kontuan hartu beharko litzateke bai lehen aipatutako estalpe hori eta bai erabilera publikoa duen gurdibidea ere. Horregatik, inguruneko errealitate fisikoa aintzat hartuta ekialdeko mugaketan aldaketa bat pro-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2197

ORDEN de 17 de marzo de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el caserío Auzokoa, sito en Ajangiz (Bizkaia) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del caserío Auzokoa, sito en Ajangiz (Bizkaia), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 19 de septiembre de 2007, publicada en el BOPV n.º 202, de 19 de octubre, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual se concedió audiencia a los interesados.

Abierto el trámite de información pública y audiencia a los interesados, Ramón Etxeandia Zabala, con domicilio en caserío Ispizuaurrekoa, ubicado junto al caserío Auzokoa, presentó escrito de alegaciones.

Ramón Etxeandia Zabala alega lo siguiente:

1.– Que muestra su disconformidad respecto a la delimitación propuesta para el lindero Este, por cuanto que en ella se incluye un cobertizo adosado al muro de carga trasero del caserío Ispizuaurrekoa en el que reside.

2.– Que, a su juicio, parece más lógico que sea el muro oeste del camino carretil, que da servicio al barrio, el que defina el límite Este de la delimitación.

3.– Que en el lindero Sur la delimitación se ha excluido una pequeña chabola.

4.– Que se debe tener en consideración la existencia del cobertizo señalado así como la existencia del camino carretil de uso público. Por ello, propone que se incluya una modificación en la delimitación del lindero Este

posatzen du: mugaketa-eremutik kanpo uztea Ispizuaurrekoa baserriko estalpea. Izan ere, lur-zerrenda hori ez da beharrezkoa katalogatutako monumentuaren babesa eta balioztatzearen aldetik eta, gainera, egokitzapen horrek ezer gutxi aldatuko luke lur-azaleraren eremua.

5.– Iradokizun moduan, auzoko iturri-askaren aipamena sartu beharko litzateke monumentuaren deskribapenean, zeren eta, nahiz eta definitutako babes-eremuaren barruan egon, ez baita haren aipamenik biltzen.

Alegazioen aurrean honako hau esan beharra dago:

I.– Mugaketari dagokionez:

Argitara emandako I. eranskinean, monumentuaren babes berezia jasotzen duen mugaketa definitzen da. Horretarako, lursailen eta jabetzen araubidea kontuan hartu badira ere, erabakigarriena ingurunearen ezaugarri fisikoak dira: naturalak eta eraikuntzakoak.

Ezarritako mugaketaren helburua da oinarrizko esparru espaziala definitzea, non baimentzen diren erabilera- eta eraikuntza-lizentzietan aintzakotzat hartuko diren kultura-ondasunaren balioak.

Beraz, mugaketaren helburua ez da galaraztea oraingo gurdibideko pasabidea -definizioz auto eta gurdientzako libre egon behar baitu- ezta auzoaren jardun egokiak eskatzen duen beharrezko edozein zortasun oztopatzea ere. Mugaketaren helburua ez da, halaber, oraingo erabilera eta eraikinak galaraztea, horretarako deklarazio honen eremutik kanpoko debeku berariazkoak beharko bailirateke.

Hori dela eta, esan behar da ezen, balorazio kultural huts baten ikuspuntutik begiratuta, estalpea egur-biltegitzat erabiltzea bateragarria dela monumentuarekin eta haren nekazaritza-eitearekin, alde batera utzita bidezko osasun, segurtasun eta apaintasun baldintzak. Hala ere, eraikitako zatia eta kultura-ondasunarekiko hurbiltasunak aintzat hartuta, komeni da ebazpenean zehaztutako mugaketari eustea, Ispizuaurrekoa baserriko atzealdeko karga-horma alegia.

Ondasunarekiko hurbiltasun horregatik beragatik, komeni da gurdibidea ere mugaketaren barruan sartzea, zeren, hartara, bertako eraikuntza-elementuetan egiten diren esku hartzeetan -bai errodadura-geruzan egindakoak, bai ertzetan eta seinaleetan egindakoak- kontuan hartuko baitira babestutako baserriaren inguru-balioak.

II.– Iturri-aska sartzeari dagokionez:

Monumentutik gertu iturri-aska bat egotea aipagarria da, inondik ere, funtzionaltasunaz gainera elementu horrek tokiari inguru-balio bat eransten diolako. Mugaketa-planoan, ordea, ez da agertzen, bertako eskalak ez que se ajuste a la realidad física del entorno dejando fuera del ámbito de afección el cobertizo del caserío Ispizuaurrekoa. Y ello porque esa franja de terreno no es necesaria para las debidas protección y puesta en valor del monumento catalogado, y porque la variación de extensión superficial que supone esa modificación es mínima.

5.– Que, a título de sugerencia, se incluya la mención en la descripción del monumento de la fuente-abrevadero que existe en el barrio, la cual aunque queda dentro del ámbito de protección definido, no se menciona.

A estas alegaciones cabe responder:

I.– Respecto a la delimitación:

El anexo I publicado define una delimitación con el ámbito de protección especial del monumento. Para la definición de esa delimitación, aunque también se ha considerado el régimen parcelario y de propiedades, lo definitorio son las circunstancias físicas del lugar: las naturales y las construidas.

Lo que pretende la delimitación establecida es definir en el lugar del emplazamiento del monumento un ámbito espacial básico en el que las licencias de usos y construcciones que se autoricen tengan en cuenta los valores del bien cultural.

Por tanto, el objeto de esa delimitación no es el impedir el paso del camino carretil existente, el cual por su propia definición, debe permanecer expedito para el tránsito de coches y carruajes; ni impedir cualquier otra servidumbre que sea necesaria para el buen funcionamiento del barrio. Tampoco lo es el impedir usos y construcciones actualmente existentes para lo cual se requieren prohibiciones expresas que no son objeto de esta declaración.

A este respecto cabe mencionar que, desde una valoración estrictamente cultural, y con independencia de las condiciones de salubridad, de seguridad y de ornato público que sean pertinentes, el uso genérico del cobertizo como almacén de maderas es compatible con el monumento y con su ambiente rural. Sin embargo, la entidad construida del mismo y la cercanía del bien cultural aconsejan mantener la delimitación definida en la resolución establecida en el muro de carga trasero del caserío Ispizuaurrekoa.

Por la misma razón de cercanía al bien, conviene incluir el camino carretil mencionado dentro de la delimitación, por cuanto que de esa forma las intervenciones que se realicen en los elementos constructivos del mismo, tanto en la capa de rodadura como en los bordes y en la señalización, deberán tener en cuenta los valores ambientales del caserío protegido.

II.– Respecto a la inclusión de la fuente-abrevadero:

La existencia de una fuente-abrevadero en la cercanía del monumento puede ser digna de mención toda vez que, además de la función que ésta pueda cumplir, añade un valor ambiental al lugar. El hecho de que no

baititu jasotzen halako eremu txikia duten elementuak. Dena den, proposatutako mugaketak bere barnean iturri-aska jasotzen duenez, horren gainean egiten diren esku-hartzeek babestutako kultura-ondasuna errespetatu beharko dute.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa da zati batean baiestea monumentuaren mugaketaren barruan dagoen iturri-askari aipamen egitea proposatzen duen alegazioa. Horretarako, Mugaketari buruzko I. eranskinean aldatu egin behar da ekialdeko mugari buruzko erreferentzia, eta honakoa dioenean «(…) Azkenik, E-ra, monumentuaren aurrealde nagusia dagoen aldera, erantsitako biltegia hartzen duen (…)», beste hau jarri behar da: «Azkenik, E-ra, monumentuaren aurrealde nagusia dagoen aldera, erantsitako biltegia eta iturri-aska hartzen dituen (…)».

Edonola ere den, baimen-araubidea Foru Aldundiaren mende egongo da, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 23., 31. eta 32. artikuluetan dioenaren arabera.

Horregatik guztiagatik, aipaturiko Legearen 17. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek egindako aldeko txostena aztertu ondoren eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamenez, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ajangizko Auzokoa baserria (Bizkaia) Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean inskribatzea, monumentu kategoriako kultura-ondasun gisa.

Bigarrena.– Ondasun honen deskribapen formala egitea, agindu honen I. eranskinean agertzen den mugaketaren arabera eta II. eranskinean adierazitako eran.

Hirugarrena.– Agindu honen berri ematea Jabetza Erregistroan, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Laugarrena.– Higiezina babesteko eskaria egitea Ajangizko Udalari, udal hirigintza-planeamenduan sartuz.

Bosgarrena.– Agindu honen berri ematea interesdunei, bai eta Ajangizko udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura, Garraio eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ere.

Seigarrena.– Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeari buruzko agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

aparezca en el plano de delimitación es debido a que la escala de delimitación no recoge elementos de pequeña superficie. No obstante, toda vez que la delimitación propuesta incluye a la fuente-abrevadero, las intervenciones constructivas sobre la misma deberán ser adecuadas al bien cultural protegido.

Por todo ello, procede estimar parcialmente la alegación presentada en el sentido de incluir una mención a la fuente-abrevadero existente dentro de la delimitación del monumento. Para ello, se propone modificar en el anexo I-Delimitación la referencia al lindero Este, y donde dice: «…Y, finalmente, al E, frente principal del monumento, una parcela que, incluyendo el almacén anejo,…«, se sustituye por: «…Y, finalmente, al E, frente principal del monumento, una parcela que, incluyendo el almacén anejo y la fuente-abrevadero,…«.

No obstante, los usos y el régimen de autorizaciones quedará sujeto a la tutela de la Diputación Foral según lo establecido en los artículo 23, 31 y 32 de la Ley 7/1990, del Patrimonio Cultural Vasco.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

Primero.– Inscribir el caserío Auzokoa, sito en Ajangiz (Bizkaia), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Segundo.– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la nueva delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

Tercero.– Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Cuarto.– Instar al Ayuntamiento de Ajangiz para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

Quinto.– Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Ajangiz, a los Departamentos de Cultura y Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Orden de inclusión del bien en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, aurretik bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 17a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La Presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de marzo de 2009.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketaren deskribapena.

Mugaketak eraikina bera eta haren ingurunea hartzen ditu. Horrela, bada, mugaketa-eremuak honako muga hauek ditu: San, nabarmenki lursail lau samar baten gainean, S fatxadatik 35 metrora lerro paralelo bat. Wean fatxadatik 15 bat metrora lerro paralelo bat, bertan kokatuta dagoen atzeko auzoko eraikinaren kokapenarekin bat etorriz. Nan, Nko fatxadatik 35 metrora dagoen muga-lerrora arteko lursaila. Azkenik, Ean, monumentuaren aurrealde nagusia dagoen aldean, erantsitako biltegia eta iturri-aska hartzen dituen eta haren aurrean dauden bi eraikinen atzealdeek (bata 25 metrora eta bestea 14 metrora) mugatzen duten lursaila.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Proposatutako mugaketaren justifikazioa Ajangizko herrigunean kokatuta dagoen Auzokoa baserriaren inguruko ingurumen eta ikusmen balioak babestu beharra da. Ingurunearen mugaketak -beharrezkoa baita ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko- baserriaren inguruko lurrak eta eraikinerako sarbidearen babesa dakar berekin, betiere, baserriaren bereizgarritasunak gordetzeko. Horregatik, mugaketak baserriaren eraikina bera ez ezik haren ingurunea ere hartzen du.

ANEXO I

Delimitación

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí, y por otro, el entorno que lo rodea. Así el área de la delimitación queda definida con los siguientes límites: al S, sobre una parcela de terreno sensiblemente horizontal, una línea paralela distante 35 metros de la fachada S. Al W una línea distante unos 15 metros de la fachada y que se ajusta al emplazamiento del edificio vecino trasero ahí ubicado. Al N, una parcela de terreno comprendida entre la propia fachada N y una línea de delimitación a 35 metros de la misma. Y, finalmente, al E, frente principal del monumento, una parcela que, incluyendo el almacén anejo y la fuente-abrevadero, queda delimitada por el borde trasero de las dos edificaciones que se encuentran delante del mismo, y que distan 25 metros una y 14 metros, en su distancia mínima, la otra.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justifica por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Auzokoa situado en el casco rural de Ajangiz. La delimitación del entorno necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien catalogado, implica la protección de los espacios adyacentes al caserío ocupados por los terrenos circundantes y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello esta delimitación incluye no solamente la edificación propiamente dicha sino también el entorno que lo rodea.


Ajangiz-Auzunea
Uruburu-Etxebarri
Gern ika
Gorgogana
Torrezuri
Leitxarte
Uruburu
Ispizuabarren
Uriarte
Ispizua
ESKALA / ESCALA
40 0 40 80 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
AUZOKOA BASERRIAREN
MUGAKETA
Lurraldea / Territorio: BIZKAIA
Udalerria / Municipio: AJANGIZ
Data / Fecha: 11/05/2007
Eskala / Escala: 1:3000

II. ERANSKINA

Deskribapena

Oinplano angeluzuzena (16 x 22,5 m) duen familia bakarreko baserria da, muino leun baten hegalean kokatua, eta bi solairu eta ganbara ditu. Estalkia hoditeiladuna da eta bi isuriko zurezko egitura dauka, Wan mirubuztan errematea du, eta gailurra du Era begira dagoen fatxadarekin luzetara. Itxiturak harlangaitzezkoak ditu eta harlanduzko eskantzuak. Bao guztiak harlanduzko eskantzuz eginak dira.

Fatxada nagusiak, E, bost ardatz bertikal ditu. Fatxada horretara heltzen da sarbidea eta aurrean, argi zabaleko arku karpanela du, okertu samarra, pilastra sendoek mugatuta. Pilastra horiek eta arkuak fatxadaren hormatik zertxobait -40 cm- ateratzen den eraikuntza-elementua osatzen dute: atariperako sarrera dira.

Beheko solairuan, arkuaren albo banatan, fatxada nagusiak harriz eta burdina-hesiz egindako baoak ditu.

Lehen solairuan, aipatutako fatxada nagusiko ateratako eraikuntza-elementua oinarritzat hartuta, erdiko hiru ardatzetako baoak betetzen duen balkoi korritua dago. Haren alboetan bi balkoi txiki daude, oinarri molduratuaren gainean zertxobait irtenda: gainerako ardatzetako baoen irteerak dira. Hiru balkoiek burdinazko baranda dute, letoizko bolez apaindua.

Sra begira dagoen fatxada sei ardatz bertikaletan antolatuta dago, eta bertan, beheko solairuan, baserriko sukalderako ate bat, burdinazko barrotez babestutako bi bao eta gezileiho bat daude. Lehen solairuak zazpi bao ditu guztira: balkoi kareldun bat eta balkoi irten bat (biak burdinazko barandadunak), gezileiho bat, proportzio bertikaleko hiru leiho eta beste leiho txikiago bat. Fatxada horrek, ganbararen solairuan eta teilatu-hegalpean beste bi bao ditu.

Mendebaldeko fatxadan, atzekoan alegia, beheko solairuak lau gezileiho ditu, barrurako laprandurandunak.

N fatxadan, sei ardatzetan antolatuta, bao hauek daude: beheko solairuan, Wko ertzean kortara sartzeko ate handi bat, gezileiho bat eta barraz babestutako hiru leiho; lehen solairuan, ekialdean burdinazko barandadun balkoi kareldun bat, hiru leiho eta bi gezileiho; teilatu-hegalpean beste bi bao txiki.

Eraikinaren egungo egitura, eraikinarekin batera egin zen XIX. mendearen bigarren hamarkadan. Eraikinaren egitura honela eginda dago: perimetroan kargahormak, barneko zeharkako karga-horma eta harroinen gaineko zutoin-ardatzak. Eraikinak dimentsio ezberdineko zeharkako 5 horma-arte ditu, eta luzetarako hiru horma-arte, erdikoa alboetakoak baino zabalagoa.

ANEXO II

Descripción

Caserío unifamiliar de planta rectangular, de 16 x 22,5 m, implantado en una suave loma, organizado con dos plantas y desván. La cubierta es de teja canal y estructura de madera a dos aguas con remate W en cola de milano y con cumbrera perpendicular a la fachada principal de orientación E. Los cerramientos son de mampostería con esquinales de sillería. Todos los huecos están ejecutados con sillares de piedra.

La fachada principal, E, se organiza en cinco ejes verticales. Esta fachada, recibe el camino de acceso y presenta ante él un arco carpanel de amplia luz, sensiblemente tendido, enmarcado por gruesas pilastras que configuran con el arco un elemento constructivo ligeramente avanzado -40 cm- sobre el paño de la fachada, y que dan paso a un soportal.

En planta baja, a cada lado del arco, la fachada principal presenta sendos huecos ejecutados en piedra y enrejados.

En planta primera, tomando como base el avance de fachada mencionado se desarrolla una balconada que ocupa los huecos de los tres ejes centrales. A ambos lados de la balconada dos pequeños balcones, ligeramente volados sobre base moldurada, dan salida a los huecos emplazados en los respectivos ejes restantes. Los tres balcones dispone de baranda de hierro ornamentada con bolas de latón.

La fachada S se ordena con seis ejes verticales sobre los que abren una puerta de acceso a la cocina del caserío, dos huecos protegidos con barrotes de hierro y una saetera, todo ello en planta baja. En planta primera, presenta un total de siete huecos: un balcón antepechado y un balcón volado, ambos con baranda de hierro, una saetera, tres ventanas de proporción vertical y una más de pequeño tamaño. Esta fachada, en la planta del desván, bajo el alero, presenta dos huecos más.

En la fachada W, trasera, en planta baja se abren cuatro saeteras con derrame hacia el interior.

En la fachada N, seis ejes verticales ordenan la apertura de los siguientes huecos: en planta baja, un portón en la parte más W de acceso a la cuadra, una saetera y tres ventanas protegidas con barrotes; en la planta primera, un balcón en la parte más E antepechado con baranda de hierro, tres ventanas más y dos saeteras. Bajo el alero, dos pequeños huecos más completan esta fachada.

La estructura actual del edificio fue construida junto con todo el edificio en la segunda década del siglo XIX. Se resuelve con muros de carga perimetrales, muro de carga transversal interior y postes-ejes sobre poyos de piedra. El edificio se organiza en cinco crujías transversales de dimensiones desiguales, y en tres crujías longitudinales siendo la central más ancha que las dos laterales.

Etxebizitzako lehen solairuko forjatuak kanpoko eta barneko karga-hormak ditu euskarri, eta lehen solairurako eskailera erdiko ardatzean garatzen da, korta bereizten duen hormaren kontra ezarritako eskailera-atal bakarrean. Solairu horretatik teilatu-azpira, beste eskailera batetik hel daiteke. Eskailera horrek bi atal ditu eta zurezkoa da.

Teilatuak petralak, gapirioak, enlatatua eta teilak ditu; horrek guztiak perimetro-hormak eta zutabeak ditu euskarri.

Erabilerari dagokionez, eraikinaren bi herenek etxebizitza-erabilera dute: lehen solairuan gelak eta logelak daude, balkoi jarraitura irekitako egongela eta komun bat kortako simaurtegiaren gainean kokatua.

Beste herena atzeko korta eta lastategiari dagokio; eremu hori barneko zeharkako karga- eta suhesi-hormek banatzen dute etxebizitzatik. Horma horrek zenbait bao ditu abereentzako asketarako.

Auzokoa garai batean Ispizua-Auzokoa baserria zegoen orubean kokatutako baserri ederra da (XVII. mendetik datozkigu haren aipamenak). XIX. mendearen bigarren hamarkadan eraiki zen Bizkaiko eredu barrokoari jarraituz, eta eredu neoklasikoko arkudun ataripea du. Eraikinaren kalitatea eta haren dimentsio handiak direla tarteko, eta fatxada nagusia eta etxebizitza-funtzioa direla eta, eraikin horrek eredu berri bat ezarri zuen, baserri tradizionala eta landa-jauregitxoa batzen dituena.

El forjado de primera planta de la vivienda se apoya en muros de carga exteriores e interiores, y la escalera de acceso a primera planta se desarrolla en el eje central en un único tramo que apoya contra el muro de separación con la cuadra. Desde esta planta hasta la bajo-cubierta, se accede por otra escalera, ésta de dos tramos, resuelta en madera.

La cubierta se resuelve con correas, cabrios, enlatado y teja, en conjunto que apoya sobre los muros perimetrales y los pilares.

En lo que respecta al uso, dos terceras partes del edificio corresponden al uso de vivienda: en la primera planta se distribuyen las habitaciones y alcobas con un salón abierto a la balconada principal así como una letrina ubicada sobre el estercolero de la cuadra.

El tercio restante corresponde al uso de la cuadra y pajar traseros, separados del uso de vivienda por el muro interior transversal cortafuegos y de carga. Este muro dispone de varios huecos para pesebre del ganado.

Auzokoa es un hermoso caserío ubicado sobre el solar del anterior caserío Ispizua-Auzokoa, del que se tienen referencias al menos desde el siglo XVII. Construido en la segunda década del siglo XIX siguiendo el modelo barroco vizcaíno incluye también soportal de arco según el tipo neoclásico. Por la calidad de su construcción y sus generosas dimensiones, así como por la presencia de su fachada principal y por su intención residencial, el edificio constituye un nuevo tipo que fusiona el tipo tradicional de casa de labranza con el tipo de palacete rural.